

# Gizateriaren aurkako delitutzat jo dute Kolonbiako irakasle baten hilketak

2001eko abuztuaren 28ko gauean bahitu, torturatu eta hil zuten Atlantikoko Unibertsitateko irakasle Freyter Romero • Fiskaltzaren arabera, unibertsitateko kideen aurkako politiken ondorio izan zen

## Arantxa Elizegi Egilegor

Irakaslea ez ezik, ekintzailea ere bazen Adolfo Freyter Romero, eta hil baino aste bate lehenago atxilotu egin zuen Poliziak. Ondoren, abuztuaren 28ko gauean, paramilitarrek atzeman zuten, eta, torturatu ostean, hil egin zuten. Ez zen izan garai hartan hil zuten unibertsitateko kide bakarra: 1998tik 2006ko tartean, Atlantikoko Unibertsitateko 23 ikasle eta irakasle hil zituzten paramilitarrek eta Poliziak.

Orain, 18 urte geroago, Kolonbiako Fiskaltzak gizateriaren aurkako delitutzat jo du Freyterren hilketak. Haren argudioen artean dago hilketak ez zela bakana izan, eta unibertsitateko ekintzaileen aurkako politiken ondorio izan zela. «Komunitate jakin baten aurkako politika bat zegoen indarrean, eta instituzio bereziak sortu zituzten helburu horrekin; horietan parte hartu zuten politikariek, goi kargudun militarrek eta bestelako arduradunek», azaldu du fiskalak.

## Paramilitarren jopuntu

Ebazpenaren arabera, Freyterren hilketan, «estatuko indarrek» ez ezik, Kolonbiako Autodefentsa Batuetako paramilitarrek ere hartu zuten parte. Azken horiek dagoeneko onartua zuten esku hartu zutela. Atlantikoko Unibertsitateko irakaslearen hilketan ez ezik, «eskuin muturreko legez kanpoko taldeek» beste sei hilketatan ere parte hartu zuten aipatu unibertsitatean, tartean Alfredo Correa de Andreisen hilketan. Azken horren kasuan, gobernuak barkamena eskatu behar izan zuen iaz.

Paramilitarrek 1998an sartu ziren lehen aldiz Atlantikoko Unibertsitatean. Urte hartan, Raul Peña irakaslea eta Alexander Acuña ikaslea hil zituzten. Gerora etorriko ziren Humberto Contreras eta Reynaldo Sernaren hilketak. Biak ziren ikasleen ordezkariak, eta, hil aurretik, auzipetu egin zituzten, matxinada egotzita.



Poliziak eta paramilitarrek hil zuten Adolfo Freyter Romero irakaslea, 2001eko abuztuaren 28an. EL TIEMPO



LUISLINA / EFE

«Unibertsitateek ahaztu eta ezkutatu egin nahi izan dute gertatutakoa»

**Jorge Freyter Romero**  
Freyter Romeroren semea

## A.E.E.

Euskal Herrian bizi da Jorge Freyter Romero, baina distantziak ez dio ahantzarazi aitari gertatutakoa. Alderantziz, 18 urtez borrokan aritu da Kolonbiako Gober-

nuak Adolfo Freyter Romerori egindakoa aitortzen. Bide horretan lehen mugarrak jarri dute, haren hilketak gizateriaren aurkako delitu izendatzea lortuta.

## Zer ondorio ditu Freyter Romeroren heriotza gizateriaren aurkako delitu izendatze izanak?

Lehen pauso bat da gertatutakoa aitortzeko, erreparatzeko eta berri ez gertatzeko, batez ere egun dugun egoeran, eta giza eskubideak bermatzeari dagokionez, ustelkeria instituzio guztietan aurki daitekeen herrialde batean. Estatuko terrorismoaren biktimak gisa, batzuetan zalantzan jartzen duzu fiskaltzaren lana. Baina egia da oraingoan urratsak egin dituztela, kontuan izanik gobernu honen kideetako batzuk ikerketapean daudela paramilitarrek inoiz izandako loturengatik.

## Garai hartan unibertsitateak paramilitarren helburu bilakatu zituztela dio fiskalak txostenean.

Kolonbiako unibertsitate publikoak poliziaren indarkeriaren eta paramilitarren jopuntu izan ziren. Ikasle eta irakasle asko hil zituzten 1998 eta 2006 artean. Atlantikoko Unibertsitatean ba-

karririk 23 pertsona hil zituzten. Arrazoia? Gobernuko alderdi tradizionalekin lotuta zeuden eta unibertsitateetan eskuin muturreko politikak bultzatzen zituzten errektore horien aurka mugitzen hasiak zirela. Horregatik, epai hau aitortza bat da, unibertsitateetan indarkeriaren biktimak izan ziren horienganako aitortza bat.

## Orain, Romeroren hilketak gizateriaren aurkako delitu izendatuta, ez dago hura epaitzeko epemugarik.

Guk fiskaltzari eta Kolonbiako Gobernuari eskatzen genion aitortza hartzeko hilketaren testuingurua. Poliziako eta armadako gaulako kideek hartu zuten parte bahiketara hartan –bahiketen aurkako segurtasun indarretako talde bereziak dira gaulak–, eta baita Kolonbiako Autodefentsa Batuetak eskuin muturreko taldeak ere. Unibertsitateetako ardura-dunek, goi mailako militarrek eta politikariek zuzendutako operazioa izan ziren hura eta beste asko, sindikalistak unibertsitate-kanporatzea helburu zutenak. Izan ere, sindikatuak paramilita-

ren esku hartzearen eta, batez ere, unibertsitateetako ustelkeriaren aurka kalera irteten hasiak ziren –garai hartan buruzagi paramilitarrek izendatzen zituzten errektoreak; hori gertatu zen, esaterako, Cordobako Unibertsitatean–.

## Zein da hurrengo urratsa?

Guretzat, garrantzitsua da hilketak gizateriaren aurkako delitutzat jotzea, ez bakarrik Freyter Romeroren kasuarengatik, baita beste askorengatik ere. 2008ra arte, militarrek esku hartu zuten unibertsitateetan, eta, Atlantikoko Unibertsitatearen kasuan, estatutak aitortzen duen lehen kasua da. Horri esker, bide orri bat osatu ahal izango dugu, eta egile intelektualetaraino heldu, horretarako nazioarteko auzitegiak jo behar badugu ere. Haiei izena eta aurpegia jartzea falta zaigun arren, badakigu harremanak dituztela udaletako eta eskualdeetako parapolitikarekin.

## Bide luzea egin duzue hona heldu arte.

Oso gogorra da halako eztabaidak piztea Kolonbian. Batetik, gertatutakoa isildu dutelako botere faktikoek, inork auzipetu ez dituzten; eta, bestetik, biktimen senideek aitortzaren beharra dutelako. Guk argi genuen prozesua zaila izango zela, baina nazioarteko kideen laguntzarekin, eta, Restrepo kolektiboko abokatuen lan onari esker, aurrera egin dugu. Kontuan izan behar dugu Guk Espainian ere jarri genuela salaketa hilketak azter zezaten, eta horrek Kolonbian izan du eraginik, han nazioarteko irudiari kalte egitearen beldur direlako.

Garrantzitsua iruditzen zaigu, era berean, unibertsitateen jarraipatzea. Izan ere, aitak lan egin zuen Atlantikoko Unibertsitatearen kasuan, ez gaituzte lagundu. Nahiago izan dute gertatutakoa ahaztu eta ezkutatu. Egia da badirela biktimak unibertsitateen esku hartzearen beharrik ikusten ez dutenak, baina, gure ustez, haiek zerikusi handia izan zuten ordu hartan gertatutakoan.